



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2019ko azaroaren 28, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:45

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden.

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2019ko urriaren 31ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 7/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditua transferitzeko modalitatean.



- 3.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 8/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 4.- Baliogabetu eta bertan behera uztea, egoki bada, 1/2019 zenbakidun konpromiso-kredituen espedientea.
- 5.- Onartzea, egoki bada, 2/2019 zenbakidun konpromiso-kredituen espedientea.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2020ko aurrekontu orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal-araua.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2020ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 8.- Onartzea, egoki bada, honako bi finka urbanoak besterentzeko adjudikazioa: Orioko 3. hirigintza-jarduerako eremuko (AIU3) -Hondartza- UE3.2 exekuzio-unitateko birpartzelazio-proiektuaren emaitzaren finken zerrendako 2B2 eta 2B3 erreferentziadun finka urbanoak.
- 9.- Onartzea, egoki bada, lankidetzeta-hitzarmena, Eusko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Orioko Udalaren artean izenpetu beharrekoa, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko Orioko udalerrian, «Munto» izeneko 8. sektorean.
- 10.- Atxikitzea, egoki bada, Gipuzkoako lurralde historikoko haur eta gazteen sustapenerako erakundearteko sareari, Gaztematikari.
- 11.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2019KO URRIAREN 31KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2019ko urriaren 31n egindako ohiko bilkurako akta.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 7/2019 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2019 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 160.069 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko azaroaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2019ko aurrekontuari dagokion 7/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 160.069 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 8/2019 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2019 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 333.603 euroko zenbatekoa du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko azaroaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2019ko aurrekontuari dagokion 8/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 333.603 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailatza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- BALIOGABETU ETA BERTAN BEHERA UZTEA, EGOKI BADA, 1/2019 ZENBAKIDUN KONPROMISO-KREDITUEN ESPEDIENTEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko azaroaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

BALIOGABETU ETA BERTAN BEHERA UZTEA 2019ko udal-aurrekontuko 1/2019 zenbakidun konpromiso-kredituen espedientea, 1.138.710 euroko zenbatekoa duena.



5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2/2019 ZENBAKIDUN KONPROMISO-KREDITUEN ESPEDIENTEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko azaroaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2019ko aurrekontuari dagokion 2/2019 zenbakidun konpromiso-kredituen espedienteari. Espedienteak 516.643 euroko zenbatekoa du.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Aginduan ezarritakoa betez, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Kontu-hartzailatza departamentua.

b) Agiriak aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

c) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa. Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4. artikulua adierazitako gainerako lekuetan ere aurkez daitezke.

d) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betikoz onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO UDALAREN 2020KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL-ARAU.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2020ko aurrekontuaren eta horren exekuzioari buruzko udal arauaren berri jasotzeaz gain, udalbatzarrak beste bi dokumentu hauen berri ere jasotzen du: idazkari-kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzko txostena, eta Orioko Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen udal-ordenantza.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko azaroaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia



eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2020ko aurrekontu orokorrari; aurrekontuaren laburpena, kapituluak, honako hau da:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTU PROPIOA

Sarrerren egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.436.300
2	Zeharkako zergak	50.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.599.518
4	Transferentzia arruntak	4.587.406
5	Ondarezko diru-sarrerak	152.258
6	Inbertsio errealen besterentzea	0
7	Kapital-transferentziak	219.250
8	Finantza-aktiboak	0
9	Finantza-pasiboak	0
GUZTIRA		8.044.732

Gastuen egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	3.323.556
2	Gastuak ondasun eta zerbitzuetan	2.525.578
3	Finantzaketa-gastuak	0
4	Transferentzia arruntak	1.228.415
5	Kreditu globala	68.400
6	Inbertsio errealak	807.223
7	Kapital-transferentziak	91.560
8	Finantza-aktiboak	0
9	Finantza-pasiboak	0
GUZTIRA		8.044.732

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko udal-araua, 2020. urteari dagokiona, Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2020ko aurrekontu orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzan.



b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, alkateak hartzen du hitza, EH BILDUren izenean, eta adierazten du bere talde politikoa onartzea erroka bat zela Udalaren hurrengo urteko aurrekontu orokorra onartzea aurtengo ekitaldi ekonomikoa amaitu baino lehen. Horrela izan da azkenean, eta alkateak dio hainbat kontu nabarmendu nahi dituela:

- 2020ko aurrekontua 2019ko azaroan onartzeko, alde aurreko lanak 2019ko abuztuan hasi ziren.
- Aurrekontuaren aurreproiektua urriaren amaierarako bidali zitzaizen udalbatza osatzen duten talde politikoei, beren zuzenketak aurkezteko, eta eskertzekoa da EAJ, PSE-EE-PSOE eta ORAIN talde politikoek emandako laguntza.
- Nabarmenezkoak dira, baita ere, aurrekontua onartzeko azkartasuna eta eraginkortasuna; eta adierazten du, bestalde, bere ustez, aurrekontu aurrerakoiak direla.

Bukatzeko, alkateak eskerrak ematen dizkie Udalaren 2020ko aurrekontua 2019ko azaroan onartzea ahalbidetu duten guztiei eta, bereziki, Orioko Udaleko idazkari-kontu-hartzaileari eta diruzainari, egin duten lanagatik.

Andoni Torres zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta zorionak ematen dizkie, baita ere, toki-korporazioa osatzen duten talde politiko guztiei, guztien lanari esker onartu baita horren azkar 2020ko aurrekontua. Adierazten du bere talde



politikoak ez dituela marra gorriak jarri aurrekontua onartzeko, eta gainontzeko taldeek onartu eta bere egin dituztela EAJren konpromiso batzuk: parke estaliaren proiektua, herri-baratzeak, Arrantzale kaletik Zaragueta eskolarainoko bidegorria, udal musika-banda sortzeko proiektua eta behar sozial espezifikoetarako aurre egiteko proiektua.

Andoni Torres zinegotziak adierazten du, baita ere, beste proiektu batzuk atzeratu egin direla, hala nola Antxiola kaleko irisgarritasuna bermatzeko neurriak hartzea, Ortzaiika auzoa hobetzeko azterketa eta horretarako neurriak hartzea eta Zaragueta ikastetxearen inguruan kirol-ekipamenduak garatzeko azterketa egitea.

Alkateak hartzen du hitza berriro, eta adierazten du 2020ko aurrekontua Udala osatzen duten lau talde politikoaren artean adostu dela, eta, beraz, ez dituela aipatuko talde politiko bakoitzak egindako ekarpenak.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOEren izenean, eta adierazten du 2020ko aurrekontua Udala osatzen duten lau alderdi politikoek egindako ekarpenen isla dela, eta, bere iritziz, nabarmentzekoa dela gizarte-partiden igoera (etxez etxeko laguntza, gizarte-larrialdietarako laguntzak, etab.). Esaten du, baita ere, legealdi hau irisgarritasuna hobetzera eta gizarte-hobekuntzak egitera bideratu behar dela.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN plataformaren izenean, eta adierazten du 2020ko aurrekontua ona dela eta bere talde politikoak udal-programan sartutako behar gehienak jasotzen dituela. Adierazten du nabarmentzekoa dela Udaleko talde politikoek erakutsitako jarrera positiboa.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2020KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERREDA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko azaroaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2020ko plantilla organikoari eta lanpostuen zerrendari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udalaren 2020ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda; arau hauek erregulatuko dute informazio publikoa:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzan.



b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, Orioko Udalaren 2020ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ARGITARATZEA plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, behin betikoz onartuta dagoenean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HONAKO BI FINKA URBANOAK BESTERENTZEKO ADJUDIKAZIOA: ORIOKO 3. HIRIGINTZA-JARDUERAKO EREMUKO (AIU3) -HONDARTZA- UE3.2 EXEKUZIO-UNITATEKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUAREN EMAITZAREN FINKEN ZERRENDAKO 2B2 ETA 2B3 ERREFERENTZIADUN FINKA URBANOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Bi finka horiek adjudikatzeko kontratua prozedura irekiko enkante publiko bidez tramitatu da eta adjudikazio-irizpide bakarra prezioa izan da.

Lehiaketak ezarritako epearen barruan lau eskaintza hauek aurkeztu dira:

Enpresa	Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe
INMOBILIARIA DE ORIO TXOKO TXIKI, SL	2.405.685.-€
ERRIBERA DIKE, SL	2.501.000.-€



PEONDAR, SL	2.301.451.-€
CONSTRUCCIONES OLABARRI, SL	3.301.000.-€

Kontratazio Mahaiak, administrazio-klausula partikularren agiriari jarraituz, proposatzen du CONSTRUCCIONES OLABARRI, SL entitate merkantilaria adjudikatzea aipatutako bi finka urbanoen prozedura irekiko enkante publiko bidez besterentzeari dagokion kontratazioa, berea baita eskaintza ekonomikorik onena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ADJUDIKATZEA CONSTRUCCIONES OLABARRI, SL entitate merkantilaria (IFK: B 48109821) honako bi finka urbanoak prozedura irekiko enkante publiko bidez besterentzeko kontratua: Orioko 3. hirigintza-jarduerako eremuko (AIU3) -Hondartza- UE3.2 exekuzio-unitateko birpartzelazio-proiektuaren emaitzaren finken zerrendako 2B2 eta 2B3 erreferentziadun finka urbanoak. Besterentzearen prezioa hau da: 3.301.000 euro gehi 693.210 euro, BEZaren %21ari dagozkionak. Hori guztia, administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako baldintzen arabera.

2.- JAKINARAZTEA erabaki hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege-errekurtsoak azalduz.

3.- ARGITARATZEA erabaki hau Orioko Udalaren kontratatzailearen profilean.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEAN IZENPETU BEHARREKOA, ALOKAIKURUO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK SUSTATZEKO ORIOKO UDALERRIAN, «MUNTO» IZENEN 8. SEKTOREAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA lankidetzaren hitzarmena, Eusko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Orioko Udalaren artean izenpetuko dena, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko Orioko udalerrian, «Munto» izeneko 8. sektorean.



2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Beñat Solaberrieta zinegotziak hartzen du hitza, EH BILDUren izenean, eta adierazten du bere talde politikoarentzat oso garrantzitsua dela lankidetzeta-hitzarmen hori sinatzea, etorkizuna babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan sustatzeari baitago. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkie Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburu Iñaki Arriolari eta PSE-EE-PSOeko zinegotzi Ana Priederi, gaia bideratzeko egindako lanagatik. Azkenik, adierazten du lankidetzeta-hitzarmen horretan nabarmentzekoak iruditzen zaizkiola klausula hauek:

- Eusko Jaurlaritzari besterendu beharreko udal-jabetzako partzelaren balioa 541.424,10 eurokoa da.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren etxebizitzak eraikitzeko obrak eta horiei lotutako urbanizazio-obrak kontratatzeko eta bere kontura egiteko.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, obra amaitu ondoren, Orioko Udalari laga beharko dio doan, ekipamendu publikorako, eraikinaren beheko solairuko 400 m² inguruko egokitu gabeko lokal baten erabilera.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak konpromisoa hartzen du Orio babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan sustatzeko interesa duen udalerri bakartzat hartzeko, eta, beraz, bertako herritarrak izango dira etxebizitza horien lehentasunezko hartzaileak.

10.- ATXIKITZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO ERAKUNDEARTEKO SAREARI, GAZTEMATIKARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Atxikitze proposamena Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Kooperazio, Gazteria eta Kiroleko Departamentuak egin du. Atxikimendu-agiriak honela dio, hitzez hitz:

Atxikimendua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari.

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten ardura berezia ez da haiek babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babesa eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzako aldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien



bizitzan oinarrizkoak diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta, aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko ardura areago nabarmentzen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik gazteriari buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere (onartzeko bidean dago), ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jarduera arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jasoa. Arautze eta partaidetza jarduera hori lagungarria izan da haur eta gazteen sustapenaren jarduketa esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Kontseiluaren 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamar urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide nabarmena egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek ardura publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru etapak, haurtzarora, nerabezarora eta gazteria, continuum gisa hartzen dituenak. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da haur, nerabe eta gazteekin zuzenean esku hartzeko zerbitzu propioak dituenak, haur eta gazteen partaidetza sustatuz politika sektorial guztietan eta gizarte bizitzan haur, nerabe eta gazteekin adeitsua edo haien aldekoa izango den ikuspegi bat sortzeko.

Gertuko udalen ardurapeko zerbitzu eta jardueren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, bai eta koordinazio eta laguntza lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzioa egituratzen eta indartzen ere, udalaz gaindi eta lurralde mailan. Apustu horri esker, 2009an Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea, Gaztematika deitua, sortu zen. Sare horrek, hainbat urtez martxan egon eta hobetuz eta prozesu eta aktibo baliotsuak sortuz jardun ondoren, udalen eta aldundiaren arteko lankidetzak hitzarmenak oinarri harturik, Gipuzkoako biztanleria eta lurralde ia osoa hartzen du, eta ehun zerbitzu egonkor baino gehiago ditu martxan.

Ibilbide hori eginda, gaur egun ezinbestekoa da sare hori juridikoki berrestea, mantentzea eta are sakontzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta arlo horretan zailtasun edo gabezia gehien dituzten udalei laguntza instituzionala emateko ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan partaidetza eraginkorra sendotzeko topagune eta proposamenen iturri izan dadin, jardunbide egokiak partekatu ahal izateko sare eta esparruak eraikiz, sinergiak bilatuz eta gazteen sustapenerako prozesuak berrelikatuz, modu horretan sorkuntza partekatuaren eta lankidetzazko



gobernantzaren alde eginez. Foru dekretu honek, beraz, aitorpen juridikoa ematen dio sareari, eta, horrekin batera, baita merezi duen bultzada ere.

Horren ondorioz, 2019ko apirilaren 16an, elaborazio eta kontraste prozesu zaindu baten ondoren, besteen artean EUDELekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea sortzeari buruzko Dekretua onartu zen. Onarpen honekin Sareari aintzatespen juridikoa ematen zitzaion eta, bide batez, merezi duen bultzada.

Hain zuzen, Dekretu honen 12. artikuluan, Udalak Sareari atxikitzeari buruz ondorengo esaten da:

12. artikulua. Udalak eta gainerako tokiko erakundeak Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari atxikitzea.

1. Udalen atxikimendua sarera, honi buruzko berariazko udal akordioaren bidez gauzatuko da.

2. Sareari atxikitzeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ikuspegia txertatzea dakar berekin, eta konpromiso hauek betetzea:

a) Aktiboki parte hartzea Sareko organo eta egituretan esleitutako pertsonen bitartez, hala arlo politikoan nola teknikoan.

b) Proposamen eta ekimenen bidez Sarearen funtzionamendua bultzatzea.

c) Sareko organo edo egitura eskudunen bidez Foru Aldundiak tokiko erakundeen alde haur eta gazteen sustapenaren arloan bideratzen dituen diru-laguntza lerroak banatzeko irizpideak zehazteko eta ezartzeko prozesuetan parte hartzea eta erabakiak hartzea.

d) Haur eta gazteen sustapenerako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta bestelako jarduera hezitzaile batzuk proposatzea, Sarean eskumena duten organo edo egiturek eztabaidatu ditzaten eta erabakiak har ditzaten.

e) Haur eta gazteen sustapena errazteko gida metodologikoak edo bestelako edozein bitarteko edo tresna proposatzea, eta batez ere sustapen planen ereduak eta estrategiak diseinatzea.

f) Sareari ezagutzera ematea haur eta gazteen sustapenaren arloan martxan jarri diren jardunbide egokiak, parte hartzen duten erakundeen ezagutza aberastu dezaketenak eta haur eta gazteen sustapenerako foru edo udal politikak –eta gainerako tokiko erakundeenak– hobetu ditzaketenak.



g) Sarearen aurrekontuak ezagutzea eta, hala badagokio, haien inguruan erabakiak hartzea, horretarako eskumena duten organo edo egituren bidez.

h) Foru aldundiak udalerriei eta gainerako tokiko erakundeei laguntza teknikoa eta lankidetzak eskaintzeko aurrera eramaten dituen prozesuetan laguntzea, arazoak edo konpondu gabeko auziak behar bezala identifikatuz eta haur eta gazteen sustapenerako tokiko politikak hobetzea xede duten arauak eta ordenantza ereduak, proposatutako gida metodologikoak eta Sarean bultzatzen den bestelako edozein ekimen sustatuz.

i) Sarea dinamizatzea dauden egituren bitartez, eta, beharrezkoa balitz, Foro Teknikoak koordinatzea.

Gure udalaren kasuan, aipatutako Sarean (...)tik hartu du parte, eta denboraldi horretan, parte-hartzea, nagusiki, urtero hitzarmenak sinatuz gauzatu da.

Horren ondorioz gure entitatea, denboraldi horretan, Gaztematika Sarearekin lankidetzan aritu da, eta Sarea osatzen duten entitate desberdinek egiten duten lanaren onurak jaso ditu: Erreferentziazko markoa, eztabaidarako eta elkarrizketarako hainbat gune, baliabide, gaitasun eta prozesu bateratuak, aholkularitza teknikoa eta bide-laguntza, lurralde mailako plan komun bat, arloari buruzko ezagutza, jakintza eta prestakuntza, diru-laguntzak, lurralde mailako programak, proiektuak eta kanpainak...

Horrenbestez, gure udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearekin bat egiteko xedez, hori arautzen duen Dekretuko 12. artikuluko ezarritakoaren arabera, osoko batzarraren erabakimenera jarriko da dagokion atxikimendu erabakia hartzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Kultura, Gazteria eta Festak Batzorde Informatzaileak 2019ko azaroaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Gipuzkoako lurralde historikoko haur eta gazteen sustapenerako erakundearteko sareari, Gaztematikari, atxikitzea, goian azaldutako terminoetan.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari atxikimendu-agiri hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

11.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Xabier Ibarguren zinegotziak hartzen du hitza, Kultura, Gazteria eta Festetako Batzorde Informatzaileko buru den aldetik, eta eskerrak ematen dizkie herriko taldeei,



Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Erregeen Kabalgata eta San Nikolas jaiak antolatzeko egiten duten lanagatik. Adierazten du San Nikolas jaiak antolatzeko bilerak joan den irailean hasi zirela eta, geroztik, bost bilera egin direla, azaroaren 21ean festa-programa diktaminatu den arte. Festa-programan nabarmentzekoak dira Herriko Plazako lanak direla-eta egin behar izan diren aldaketak: alde batetik, karpa handi bat jarriko da ikastolaren aurreko zabalgunean, festagunea bertan izan dadin eta, bestetik, hori dela-eta, aurten ez da barrakarik izango, barraken ohiko tokia festaguneak okupatuko baitu. Xabier Ibarguren zinegotziak adierazten du bi bilera egin dituztela barrakeroekin, kokapen alternatiboak aztertzeko, eta bi aukera egon direla mahai gainean: Mendibeltz futbol eta sofbol zelaia ondo aparkalekua eta autopistako zubiaren azpikoa. Lehenak 150 aparkaleku-plaza kentzea zekarren eta bigarrenak, berriz, 18.500 euroko gastua zekarkion Udalari. Hori dela-eta, azkenean, aurtengo San Nikolas jaietan barrakarik ez izatea erabaki du Festa Batzordeak.

Bukatzeko, Xabier Ibarguren zinegotziak adierazten du aurtengo festetako txupinazoa Orioko Mintzalagun taldeak botako duela, 10 urte bete dituelako; eta adierazten du, baita ere, inolako erasorik gabeko festak aldarrikatu nahi dituela, «Ondo pasa eta gozatu» lelopean.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du udal-teknikarien iritziz Mendibeltz zelaian barrakak jartzeak aparkatzeko 50 plaza murriztea ekarriko lukeela. Bestalde, adierazten du Festa Batzordeak ezin duela organo erabakitzailea izan eta Udaleko Festa Batzorde Informatzaileari dagokiola, azken batean, festa-programa diktaminatzea.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du herriko festak antolatzeko eta egiteko eredu berri baten aurrean gaudela, eta barrakak jartzearen edo ez jartzearen inguruan, berretsi egiten duela Xabier Ibarguren zinegotziak esandakoa udal-bulego teknikoak planteatutako bi kokapen-aukerei dagokienez. Bi aukera horiek, azkenean, baztertu egin ziren: bata, aparkatzeko plazen galera handiagatik (150 plaza, udal-teknikarien txostenen arabera); eta bestea, barrakeroek 18.500 euro eskatzen zituztelako konpentsazio gisa).

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du berririo hitza eta adierazten du ez dagoela ados udal-kanpina 2020ko martxoan irekitzearekin eta eskatzen duela 2020ko otsailaren bukaerarako irekitzea, hartara, 2020ko otsailaren 22an egingo den traineruen jaitsieran parte hartzen dutenei ostatua emateko.

Alkateak erantzuten du 2020an udal-kanpina irekitzeko data ez aurreratzeko erabakia kanpineko zuzendariaren txosten batean oinarritu dela. Txosten horrek kanpina irekitzeko data aurreratzearen kontrako iritzia agertzen du, beharrezko langileak kontratatuzko kostuen plangintza serioa eta zorrotza egin behar baita. Esaten du, baita ere, neguan udal-kanpina obratan izango dela.



ORIOKODALA



Bakarne Oriden zinegotziak hartzen du hitza, Udaleko Turismo Batzorde Informatzaileko burua den aldetik, alkateak adierazitakoa berresteko eta adierazteko udal-kanpina 2020an lehenago irekitzeak defizit ekonomikoa sortuko lukeela.

Azkenik, Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du Turismo Batzorde Informatzailearen bilkuran gehiengoz diktaminatu zela ez onartzea udal-kanpina 2020an lehenago irekitzea, gai horretan eskumena duten udal-teknikariak emandako txostenak kontrakoak zirelako.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsona batzuek hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,